


EA21 TOLOSALDEA

*EA21 2016/2017*


***URAK DAKARRENA***

**ALEGIA**




Kaixo, **Alegia** ko  
ikasleak gara  
eta

**Eskolako Agenda 21**  
proiektuaren barruan  
egin dugun lana  
aurkeztera  
etorri gara.



Aurten **URA** landu dugu !!!








Baina ez gara bakarrik ibili,  
**irakasleek**, **eskolako beste langile**  
eta **gurasoek** ere hartu dute parte.







HH.ko ikasleak  
erreka garbi  
mantentzearen  
garrantziaz  
konturatu gara



Eta gure  
jostailuak  
egiten ikasi  
dugu ere!






Lhko 1.eta 2. mailako  
ikasleok herriko iturriak  
aztertu ditugu







Lhko 3.eta 4. mailako ikasleok herritarren ohiturak aztertu ditugu.







Lhko 5.eta 6. mailako ikasleok Oria ibaia eta inguruak aztertu ditugu Aranzadiko lagunekin, landare espezie inbaditzaileen bila.



**DBHko ikasleek** Uraren zikloa aztertu dugu, bai naturala eta baita horniketa eta saneamendurako.







**Ibaialde** programarekin errekaren egoera aztertu dugu.

Horretaz gain gurasoei ere  
herriko uraren inguruan dituzten  
kezkak ezagutzeko galdetegi bat  
egin diegu.





Jarraian, egindako lanaren  
**ONDORIO**, **KONPROMISO**  
eta **PROPOSAMENAK**  
aurkeztuko dizkizuegu


# ONDORIOAK

- Ur txorrota behar dugunean **bakarrik** ireki beharko genuke.
- Iturriak **zaindu** eta **txukun** utzi beharko genituzke.
- Erreka/ibaira **zikinkeriarik ez** genuke bota behar.
- **GUK** kutsatzen dugu ura eta ura kutsatzen badugu gu ere kutsatuko gara.



# KONPROMISOAK:

- Ikastetxeko iturrien **emaria** txikitzea (briden bitartez....)
- Erabili ondoren **kanilak** ixtea.
- Dutzatan (soinketaren ondoren) ahal den **ur gutxien** erabiltzea.



# PROPOSAMENAK

SAN JUAN (LH)

- Herrian zehar ibaia garbi mantentzearen garrantziaz ohartarazteko **kartelak** jartzea. Ikastetxeak kartelak egiteko prest gaude!
- Izorratutako **iturriak konpontzea** (Bulebarra eta eliza urrekoa).
- Ikastetxeko patio atzekaldean edo aterpean **iturri berri bat** jartzea.







# PROPOSAMENAK

## ARALAR (DBH)

- Errekan detektatutako **kutsadura** hori nondik datorren aztertzea.
- Herritarrei **informazio** ematea





Denon artean **Alegia**  
justuagoa eta jasangarriagoa  
lortuko dugulakoan,  
**jaso ezazue gure agurrik  
beroena !!!**